

PUJANA'tar BASILIO

PUJANA'tar Basilio bertsolari eta adiskideari omenaldiak egin dautsoez eta jentetza aundien giroan egin be.

Baisilio, biotz-biguna dan ezkerro, guztiz samurtuta ikusi dogu, eta bere antzera ALBERDI bere adiskide ta bertsolarikidea be.

Zorionak gure aldizkari onen bidez bertsolari bioi, Euskalerriaren alde egin daben Ian txalogarriagaitik.

ALDI LARRIETAN

Pujana'tar Basilio'ren lana aldi larrietan egiña izan zala diñoe, guda-ostean eta euskeraz berba egitea bera be txartzat artzen zan aldietan, bear ba'da, Baserri bertsolaria antzeko lana egiten ibilli zan aldian.

Bertsolari onek Baserri'gaz dauan zer-ikusia, edo obeto esateko, aldi bardiñean lana egin izatea aztertua izango zan omenaldian, baiña ez dogu izan olako ekiñaldietan izateko erarik.

ZORRA

Basilio'k berak aitatu dau omenaldi au egin dautsolako erriari dautson zorra zelan ordainduko ete dauan eta erantzuna be antzekoa izan da: Erriak dautsola ordaintzeko erreza ez dan zorra.

Orra or alde bietatik esker ona agertzeko aukerea ta eginbearra, orra or alkarlaguntzarako giro egokia.

BERTSO-PAPELAK

Moba bi bertsolarl.

Aldi illun areitan Pujana'ren lana bertso-papelak ateratea be izan ei zan. Eta Ian egokia da, agiriko bertsolaritzarik ezin eratu zan aldian erdi-isillekoak diran bertsoak zabaltzea. Gogoan daukak nik ume-aroan olako papelak artu eta abestu egiten genduzana, baiña ez zan jakiten nondik etorria eta nok egiña zan. Bear ba'da Pujana izango zan egille. Bizkai guztia olako papelez bete ei eban.

AUNDIKIRO

Pujana eta Alberdi'ri egin jakezan omenaldiak bertsolarien aldetik beintzat, aundikiro egiñak izan dira, olako gizon batek bear dauan maillan.

Berrogei ta amabi bertsolarik artu ei eben parte eta euren artean Pujana'ren billoba bi.

Zorionik beroena ba, Basilio adiskideari eta laster izango dogula barriro alkar ikusteko aukerea uste dot.

OLAZAR'tar MARTIN'ek